

FORU DEKRETURAKO PROIEKTUAREN BEHARRA ETA AUKERA EGIAZTATZEN DITUEN TXOSTENA. FORU DEKRETU HORREN BIDEZ ALDATZEN DA APIRILAREN 30EKO 37/2014 FORU DEKRETUA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTU BAITZEN NAFARROAKO FORU KOMUNITATEKO ADMINISTRAZIOAREN UNIBERTSITATEZ KANPOKO IRAKASLE KIDEGOEI DAGOZKIEN LANPOSTUEN HORNIDURA

Orain arte, apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuak arautzen zituen Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuen hornidura.

Apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuak, zeinak arautzen baitu nola bete Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasle kidegoei dagozkien lanpostuak, horiek betetzeko erregelamenduzko araubidea jasotzen du, zentzu zabalean hartuta; hau da, ez da behin betiko destino bat lortzera mugatzen, baizik eta ikasturte baterako edo zerbitzu-eginkizunetan emandako behin-behineko destinoak diren kasuetara ere iristen da.

Berrikusi eta aldatu egin behar dira apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretuan jasotako erregulazio- eta garapen-elementu batzuk. Izan ere, alde batetik, kontuan hartuta dekretua indarrean sartu eta aplikatzen hasi zenetik izan den esperientzia, eta denbora ere igaro denez, beharrezkoa da eguneratzea. Bestetik, atzerriko hizkuntzetan ikasteko programak garatu eta ezarri dira, baina Estatuaren eskumeneko oinarrizko arau-esparruak ez du aukerarik ematen irakaskuntzako funtzio publikoan sartzeko atzerriko hizkuntzen ezagutza egiaztatuz, eta horregatik eguneratu behar da foru dekretuan aurreikusitako araubide iragankorra, hartara programa horiek eskatzen dituzten langile-beharrak bete ahal izateko.

Foru dekretu hori indarrean sartu zenetik, haren babesean egin diren deialdiek agerian utzi dute dekretu horretan hobekuntzak sar litezkeela, segurtasun handiagoa izateko haren aplikazioan, bai eta arauaren aurreikuspenak egokitu litezkeela ere Nafarroako hezkuntza sistemaren errealitate aldakorrera, irakasleen kidegoetan sartzeko eta lanpostuak betetzeko arloan indarrean dagoen Estatuko araudiari dagokionez.

Aldatu nahi da apirilaren 30eko 37/2014 Foru Dekretua, zeinak arautzen baitu nola bete Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoei dagozkien lanpostuak. Aldaketaren helburu nagusia da foru dekretua bat etortzea lanpostuak behin betiko nahiz behin-behineko destinoetan betetzeko egun dauden beharrianekin eta eskakizunekin, atzerriko hizkuntzak ikasteko programekin lotutakoak barne.

Erregelamendu bidezko garapen eguneratu batek aukera ematen du etorkizunean hezkuntza sistemaren beharrei egokitutako jarduketak egiteko. Horretarako une egokia da, foru dekretuaren arauak aplikatzen ari diren azken ikasturteetan metatutako esperientzia aprobetxatuz. Hori dela eta, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzura dauden unibertsitatez kanpoko irakasleen kidegoetako lanpostuen hornidurari dagokionez, antolamenduaren eta garapenaren erregulazioan hobekuntza handiak sartzeko moduan gaude.

Gainera, erregimen iragankorra amaitzeaz dagoenez, eguneratu egin behar da, indarra galdu baino lehen.

Iruñean, 2021eko otsailaren 24an

HEZKUNTZA BALIABIDEEN ZUZENDARI NAGUSIA

(Sinadura jatorrizkoan dago)

Begoña Unzué Vela